

KAR-CAR-KAR BALIO PROPOSAMENA

Guk geuk, kar-car-kar-ren sortzaileak, herri batean bizi gara eta egunero bizi dugu garraio publikoaren gabezia. Garraio publikoak (autobusak, trenak etabar) egunero pasatzen dira, hala ere maistazuna nahiko eskasa da, hau da, ez da nahikoa eguneroko bizitzan herritar bakoitzak egin behar dituen bidaiak asetzeko. Herrietan bizi diren pertsonentzako askotan, kotxerik gabe, hirietara edo urruneko lekuetara iristea zaila da. Horregatik pentsatu dugu: zergatik ez sortu aplikazio bat, non jendeak, herritarrek eurek, autoan lekua badute, eskaintza egin ahal duten? Horrela, garraioa edukiko genuke egun osoan, ez soilik ordutegi jakin batzuetan. Hortaz, kar-car-kar enpresa sortu genuen.

kar-car-kar herri txikietan bizi direnentzako sortutako aplikazio bat da. Ideia da jendeak elkarrekin kotxea partekatzea, batez ere herrietan garraio publikoa oso mugatua delako. Aplikazio honek aukera emango du jendeak elkarrekin joateko leku batetik bestera, kotxea dutenek bidaiak eskainiz eta kotxerik ez dutenek haiekin joateko aukera izanez.

Kar-car-kar ez da garraio-enpresa handi baten zerbitzu bat. Aitzitik, herritarren artean sortutako konponbidea da, herritarrentzat. Beste aplikazio batzuk distantzia luzeko bidaiari begira daude, edo hiri handietan erabiltzeko pentsatuta daude. Guk, ordea, herri txikietan bizi garenon arazo zehatza konpontzen dugu: mugitzeko aukera falta. Horrez gain, aplikazio honek gizarte edo komunitate sentimendua sortzen du, bizilagunen arteko elkarlana bultzatuz eta konfiantzan oinarritutako harremanak sendotuz. Ez gara soilik garraiatzen — elkarri laguntzen diogu.

Bestetik, ingurumenari ere laguntzen dio kar-car-kar-ek. Autoak partekatuta, kotxe gutxiago ibiliko dira errepidean, eta horrek emisio gutxiago sortzen du, kutsadura murriztuz. Hirietan garraio publiko eta partekatua sustatzen da, ingurumena zaintzeko. kar-car-kar-ek, hirak bezala, herrietan garraio sistema hau aplikatu nahi du, baina herrietan aplikagarriagoa den modu batean, kutsadura murriztuz. Horrela, ez da beharrezkoa izangi bakoitzak bere kotxea eramatea leku berera joateko.

Eta azkenik, ekonomikoki ere lagungarria da: bidaiak partekatzeak gastuak murrizten ditu, bai erregaletan, bai mantentze-lanetan. Gainera, ez da zertan beti dirua kobratu; zenbait kasutan, jendeak besterik gabe elkarri lagundu nahi dio. Honek baita kolektibo sentimendua sortzen du, herritarren artean elkarlaguntza eta laguntasuna bultzatzen.

Baina benetako galdera hau da: Zertan dezberdinduko da kar-car-kar enpresa Bla-Bla car eta Uber enpresekin? Ba, bi enpresa hauen helburu nagusia dirua lortzea da, enpresa aberazteko. kar-car-kar enpresa berriz herri txikien biztanleen ongizatea bilatzen dute, beharrezko zerbitzu bat eskaintzen. Baita ingurumena errespetatzen du, eta kutsadura ekiditzen du. Hau kar-car-kar-en benetako helburua da.

Laburbilduz, kar-car-kar aplikazioa herri txikietan bizi direnen eguneroko mugikortasun arazoari irtenbidea emateko jaio da. Garraio publiko eskasaren aurrean, herritarren arteko elkarlana sustatzen du, kotxeak partekatuz eta ingurumenari lagunduz. Horrela, kutsadura murrizten da,

gastuak txikitzen dira eta komunitatearen batasuna sendotzen da. Ez da soilik garraio alternatiba bat, bizimodu berri bat da: elkartasunean, konfiantzan eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritua. kar-car-kar-ek helburu sozial eta ekologikoa du, ez ekonomikoa, eta horregatik da benetan berezia.

- Gure aplikazioak euskaraz erabiltzeko aukera eskaintzen du, eta hori ez da xehetasun huts bat: euskara bizirik mantentzeko eta eguneroko bizitzan gehiago erabiltzeko modu praktikoa eta eraginkorra da. Horrez gain, erabiltzaileari gertutasun handiagoa eskaintzen dio, izan ere, bere hizkuntza propioan nabigatzeak konfiantza eta lasaitasuna ematen ditu. Aplikazioak hizkuntza-aukeraren bidez tokiko identitatea eta kultura balioesten ditu, eta horrek erabiltzailearen esperientzia pertsonalago eta esanguratsuago bihurtzen du. Euskara teknologia modernoetan txertatzeak, gainera, hizkuntza bizirik eta eguneratua dagoela erakusten du, eta gazteen artean erabilera sustatzen du.
- Beste aplikazio askok norbanakoaren erabileran oinarritzen diren bitartean, gure App-ak komunitatearen garrantzia azpimarratzen du. Erabiltzaileek elkarren artean konektatzeko, esperientziak partekatzeko eta laguntza jasotzeko aukera dute, eta horrek benetako komunitate-sentimendua sortzen du. Lotura hori ez da ohikoa beste plataformetan, non askotan erabiltzaileak isolatuta geratzen diren. Gure aplikazioak, ordea elkartasuna, parte-hartzea eta identitate kolektiboa sustatzen ditu. Horri esker, erabiltzaileek ez dute soilik aplikazio bat erabiltzen; talde baten parte direla sentitzen dute. Komunitatearen indar hori da, hain zuzen, gure App-a bereizten duena eta erabiltzaileengan leialtasun eta konfiantza handiagoa sortzen duena.

ESLOGANA:

Elkarrekin bidean, herritik eta bihotzetik